

Opor-garaia

LONTXO OIHARTZABAL



AURTENGO

oporak non eta nola emango pentsatzen jarriak gara. Bai! Urtean zeharko lanek, kezkek eta gorabeherak nekatu egiten gaituzte, urduri jartzen eta patxada galarazten. Bizitzak me-reziko badu, atsedena eta aisealdiak ezinbesteko ditugu. Galde, bestela, psikologoei eta medikuei: stressa omen da egungo izurritierik handienetakoa. Beto, beraz, oporak gure lasaibiderako.

Baina lasa bizitzen ere jakin egin behar da oporaldian. Asko nekaturik itzultzen omen da oporretatik. Pertsona ugariri entzuten zaio hori aisealdiaren amaieran. Lasaitzera joan eta stressaturik etorri! Ez da atarramendu ederra!

Oporaldian bidai-antolatuen egiteko joera, antza denez, gero eta handiagoa da. Bakoitza bere denborapasa bere erara antolatzeke gai ez nonbait, eta besteren esku uzten dugu gure hamabostaldiaren edo hilabetetxoaren prestakuntza eta gidaritza. Lanerako prestatu gaituzte eta hori ikasi dugu. Zer egin lanik gabeko laupost aste horietan zehar? Hau prolema izatea ez al da nahiko prolema? Asko eta asko, behintzat, egoera horretan aurkitzen da, bai, eta bidai-agentzi batera jotzen du.

Eta nik ez dakit zergatik, baina, goizero goiz jeiki beharreko plangintza egiten dizute, gero egunean zehar halako paisaiak, bestelakdo ur-jauzierak, ez dakit nolako monumentuak, denda ikusgarri merkeak e.a. ikustatu ahal izateko. Apaldu ere apaldu beharko, eta ondoren gaufesta-giroa ezagutu ere ezagutu nahi. Gauerdia aurrera joan denean ohera. Hurrengo goizean goiz utzi behar ohearen gozotasuna. Eta berriro korri eta salto autobusera igo, autobusetik irten. Hau ikusi, bestea begira,...

Azkenean, nekaturik, stressaturik etxera. «Oraintxe bai beharko nituzkela deskantsatzeko egun batzu!» Eta zoaz bihar lanera.

Kalea

EUSEBIO OSA



LANUZTEAK


ez du ezer konponduko. Kalean ez da ezer konpontzen. Hori esan du Solchaga ministrari sozialista demokratikoa liberalak. Garai bateko Fragak berea zuen kalea eta hor agindu nahi zuen. Sozialista hauek kalean gutxi ikusten dira. Bulegoak maite dituzte. Hortik konpondu nahi dute ekonomia. Batipat, makroekonomia, teoria makroekonomikoa eta bestea, hots, irabazi haundiak, ministrariak, kargu haundienak, bankeroenak, enpresariak. Baliteke Solchagak arrazoi izatea; lanuzte honek ez du konponduko ezer. Kaleko kontu, ibili, zarata eta manifestazio guztiek ere ez. Kaleak ez du arrazoirik. Ikasi berria dugu; Gasteizko kaleek ohiukatu dute. «Buesa aizak, aldegin ezak». Baina lehendakariak azkar: «Buesari bere tokian eutsiko diot». Dena den, uste dudanez, lanuztearen xedea ez da ezer konpontzea, gaizki konpondu dena deskonpontzea baizik. Edota, kentzea. Adibidez, botoak kentzea.

Dekretazioa erretiratzeko balioko ez balu ere, botoa erretiratzeko balioko balu, sikera. Solchagak 'sozialismo demokratikoa liberala' defendatu nahi du orain, hau da, sozialismo kapitalista. Dena da posible farsanteen semantikan. Bonba garbiarena aspaldi asmatu zuten Amerikarrek. Hilaketa garbiak ere bai, aulki elektrikoetakoak eta. Adjektibaketa absurdoenak hor dabilta politikoen diskurtsoetan. Botere ekonomikoaren bulegoetan dena da posible. Oraingo lanuztaileak geroko botouztaile bilakatu balira, sikera. Logikaren zapalketa, hitzaren lapurreta halaxe zigortuko bagenu, solamente! Botua emateko goiza hel dadinean botouztea praktikatu beharko du eskarmentua izan duen eta masokista izan nahi ez duen lanuztaileak.

EL PAIS

Elkarrizketa bonbari

Igandeko atentatua, EAJ eta HBk 'biolentziaren kausez' iragarri dituzten beren topaketetarik lehena izan eta egun batzuetara etorri da. EAJ Bidarteko atxiloteten aurretik konprometitu zen bide hori egitera, arriskutzat asumituz aurreko 1986ko saioan bezala aldi berean atentatuak gertatzea eta solaskideetako zenbait ETA ez desagertzeko interesdunenetakoak izatea. Beraz, Madrilen gertatutakoak EAJ behartu egiten du, gutxienez, egiati izatera: solaskide horiei jakineraztera bio-



ZULET / DIARIO VASCO

DEIA

Buesa eta ikastolaren gerra

Ikastolek osatutako gorputzaren eta sarearen alde ni aina saiaturik gutxi da, noski. Baina alderdirik gehienak hirugarren sare horren kontra agertu ziren.

M. ATXAGA

EDITORIALA

UZENDARIARI

Elorrioko txarto ulertua:

Txarto ulertua, izan zen Elorrioren gertatua. Komunikabideen botere mugagabea bertsolaritzara ere heldu da. Eta berau erabiliz, txanponaren beste aldeak erakutsi nahi genuke, era murriztean bada ere.

Hasteko, hasierako parodia ez zen izan inolaz ere saioaren ardatza, kritika orokorago baten ataltzua baizik. Parodia horren esanahia ez zen izan telebistan gazteen agerpen eza, salbuespenak barne, agertu nahi izan edo ulertu duten bezala, baizik eta bere planteamendu elitistaren aurkako jarrerak. 'Hitzetik Hortzera' elitista da eta gorpil zoro batera darama bertsolaritza. Eta berriro ere agertzen zaigun galdera: «Atera al daiteke bertso txarrik telebistan?» Agian ez; agian Euskal Herriko txapelduna bertsolari txarra da; agian telebistan atera zen Elorrioko puntukako saioan oso puntu onak bota ziren. Agian bai, baina guk ez dugu hala denik uste.

Eta ez dugu uste komunikabideen jarrera zuzena izan denik. Lehenik, Joxean Agirre-ren artikulua ez zuen agertzen Elorrioren gertatutakoa. Zaila da sinistea bertan izan

zenik. Nondik atera zuen Dabit Zabala, Unai Agirre, Arantzatzu Loidi, Beñat Gaztelurrutia, Xabier Silbeira eta Jesus Mari Irazu «Joxerra Garziaren esanetara» jendaurretik pasa zirela? Berrogei bat bertsolartik zortzik baino ez zuten lehen atalean kantatu. Ondoren beste txarto ulertu bat: Iñigo Gojenola eta Jon Mikel Omagogeaskoaren saioaren kritika egin zuen Joxean Agirrek prestatua zelakoan. Ez zuen ulertu hura ere kritika zela.

Argitu behar dugu baita, bapateko saio bat egitea zela gure ametsa-bertso bi salbuespen eta lortu gurela uste dugu. Kritika sortaraztea zen gure nahi, lortu dugu, fede onez eta baita letxe txarrez, baina inolaz ere ez genuen inor mindu nahi telebistan agertu ez zen Igor Elortzaren hirugarren bertsoan arras argi adierazten zen bezala.

GERNIKAKO BERTSO ESKOLA

Ibargutxi eta Oar-Artetaren zehargaldera

Azkuek ohar egiten du beronen Hitzegian (s.v. BA-), Añibarro idazle jator eta dotoreak ere huts egin zuela «Eztaikit nik

elduko nazar» zuzenaren orde, «Ezdaikit nik elduko banaz» jarri zuelako, eta huts egite hori «un abuso que conviene eliminar» dela gehitzen du.

Labayru Ikastegiak, Sutondoan Sailean, Jose Antonio Oar-Artetaren *Zaar-Barri* idazlana argitaratu eman du, oraindik oraintsu. 'Ezaugarri berezi bat' atalean, 220. orrialdean, autoreak Jon Gurutz Ibargutxiren ahotan jartzen du segidako esaldi hau: «Emengoa atzeman, atrapau dozu, ia beste mundukoa atrapatzen badozu».

Azkuek, goian esan dugun agindu hori eman zuenetik, ez dugu uste ontzat eman izan duenik gramatikoa batek ere idazkera hori, zeharo herritarra bada ere. J.G. Ibargutxiren joskera hori, haatik, edota Oar-Artetaren gogoratzen duena, testuaren «utsunerik andienak orraztu eta zuzendutela lagundu» zion Eutikio Zuluetak ere zegoen haretan utzi zuena, edizioaren apailamendua egin zuen Asier Astigarraga ere, «jatorrizko testuaren ugaritasuna zaindu egin izan da» dioelarik, moldezko letretara iragan dena, berriz ere, Zuzendari jauna, hizkuntzalaritza deskriptiboa eta preskriptiboa aurrez aurre jartera dator?

A.Z.

Bakio (Bizkaia)

GAIA JARRITA



27-28

Hogeitazazpi hogeitazortzi Euskadi edo Espainia nafarrentzako duda galanta jarri dute alajaina hau izango da gure herrian nortasun ezan ordaina nor ta non gauden adierazteko haxe aukera bikaina atzo izan zen neretzat greba bietan nahi nuan baina.

MANOLO AROZENA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDEKontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
LUZUEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02. Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 59 35 75